

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

5686

13/2022 LEGEA, abenduaren 15ekoa, kiroleko dopinaren aurkako legea bigarren aldiz aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak 13/2022 Legea, abenduaren 15ekoa, kiroleko dopinaren aurkako legea bigarren aldiz aldatzeko onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN ADIERAZPENA

2012. urtean, Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu zuen, eta, horretarako, kiroleko dopinaren aurkako borrokan nazioartean aurreratuen dauden erakundeek onartutako printzipioak hartu zituen oinarritzat. Lehiaketa-kirolaren egitura piramidala denez, eta lurralde-eremu eta -maila batzuetako eta besteetako kirol-lehiaketak elkarren artean lotuta daudenez, esparru juridiko komuna behar da kiroleko dopinaren aurka borrokatzeko.

Hori dela eta, 2003. urtean, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak Dopinaren aurkako Mundu Kodea idatzi zuen, eta kode horren osagarri diren nazioarteko estandarrak ere zehaztu zituen. Testu horiek nazioarteko kirol-mugimenduak derrigor bete beharreko arau eta jarraibideen multzoa dira, eta, horrekin batera, baita beharrezko erreferentzia ere dopinaren aurkako borrokan esku hartzen ari diren erakunde publikoentzat. Ekimen horien ondorioz, Unescok Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa onartu zuen, 2005eko urriaren 19an izandako bileran. Espainiak ere berretsi egin du konbentzio hori (2007ko otsailaren 16ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), eta gure ordenamendu juridikoaren zati da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera. Nahiz eta Dopinaren aurkako Mundu Kodea ez izan konbentzioaren zati, konbentzioak dio sinatzaileak behartuta daudela kodean azaltzen diren printzipioak errespetatzera, kiroleko dopinaren aurkako borroka-moldeak koordinatzeko, Estatuan eta nazioartean.

Aipatu beharra dago Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea jada aldatu zela behin, 2018ko ekainaren 7ko 1/2018 Legearen bitartez (2018ko ekainaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria). Orduan, ekainaren 7ko 1/2018 Legearen bidez, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Mundu Kodea egokitu zen; mundu-kode hori Johannesburgen (Hegoafrika) onartu zen, 2013ko azaroaren 12tik 15era bitartean egindako Dopinaren aurkako IV. Mundu Konferentzian, zenbait kirol-erakunde eta estaturen parte-hartzearekin.

2019ko azaroaren 7an, Dopinaren aurkako V. Mundu Konferentzia egin zen Katowice-n (Polonia), zenbait kirol-erakunderen eta estaturen ordezkarien parte-hartzearekin, eta Dopinaren aurkako Mundu Kodea onartu zen. Bada, mundu-kode hori 2021eko urtarrilaren 1ean jarri da indarrean.

Hona kode berriak dakartzan aldaketa esanguratsuenak:

– Legea interpretatzean, Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotako arauak eta irizpideak hartu behar dira oinarritzat, barnean direla Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako eta argitaratutako nazioarteko estandarrak, baita entitate horrek unean-unean ezarriak dituen dokumentu teknikoak ere.

– Kirolariak zenbait motatakoak izan daitezke, aintzat hartuta, batetik, kirol-maila batean ala beste aritzen diren (hots, nazioarteko kirolariak diren ala ez), eta, bestetik, federatuak diren ala ez. Hain zuzen ere, kirolariei betebeharrak edo erantzukizun jakin batzuk exijitzeko, kirolaria zein motatakoak den hartzen da kontuan.

– Dopinaren alorrean legez kontraktat hartzen diren jokabideen katalogoan ageri diren arau-hauste jakin batzuk aldatu egiten dira, eta, halaber, beste batzuk gehitzen dira.

– Dopin-kontrolatan kirolariei hartutako laginak bitan banatzeko aukera ematen da, lagin horiek berriz ere analizatu ahal izateko balizko arau-hausteen preskripzio-epearen barruan.

– Pasaporte biologikoaren bideragarritasuna indartzen da, dopinaren alorreko arau-hauste jakin batzuk egin ote diren zehazteko tresna baliozkoa eta onargarria delakoan.

– Ezartzen da dopatzaileen zerrendan badirela substantzia batzuk abusuzkotzat jotzen direnak. Substantzia horiek gizarte-eremu jakin batzuetan erabiltzen dira, aldizka, baina kirol-errendimen-dua hobetzeko asmorik gabe.

– Ezartzen da berariazko zehapen-tratamendu bat aplikatuko dela kasu batzuetan, baldin eta arau-hausleak dopinaren aurkako agintaritzak proposatutako zehapena onartzen badu.

Horiek horrela, Euskadik nahitaez egokitu beharra dauka, berriro ere eta lehenbailehen, gaur egun indarrean dagoen Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Mundu Kode berrira. Euskadik bere araudia egokitu behar du, gainerako kirol-erakundeek, estatuak edo herrialdeek xede edo helburu berarekin beren araudiak egokitu dituzten edo egokitzen ari diren modu berean.

Azkenik, legea erreformatuko dela baliatuta, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea datu pertsonalen babesaren alorrean izan diren aldaketetara egokitu behar da, hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren ondoriozko aldaketetara (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren ondoriozko aldaketetara.

Artikulu bakarra.– Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzea.

Aldatu egiten da Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea, eta honela geratzen da idatzita:

Bat.– 7. eta 8. apartatuak eransten zaizkio 1. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«7.– Lege honen ondorioetarako, kirolariak maila hauetan sailkatzen dira:

a) Nazioarte-mailako kirolari federatuak: federatuta dauden eta, horrez gain, lortu dituzten emaitzak edo maila direla-eta, unean uneko nazioarteko federazioak –entitate horrek zehaztutako irizpideen arabera– federatutzat jotzen dituen pertsonak.

b) Nazioarte-mailakoak ez diren kirolari federatuak: federatuta egon arren nazioarte-mailakotzat jotzen ez diren pertsonak. Era berean, halakotzat hartuko dira federazio-lizentziaren indarraldia amaitu zaiela-eta une jakin batean federatuta ez egon arren berriro federatuta egongo direla eta kirol-jarduera garatzen jarraituko dutela aurreikusten diren pertsonak.

c) Amateurrak: federatuta ez egon arren lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren kirol-lehiaketa edo -jardueretan parte hartzen duten pertsonak, haietan erregularitasun handiagoz edo txikiagoz parte hartzen dutela ere.

d) Babestuak: jarraian adierazitako egoeretako batean dauden pertsonak:

(I) Dopinaren aurkako araudia haustean hamasei urte beteak ez dituztenak.

(II) Dopinaren aurkako araudia haustean hemezortzi urte beteak ez dituztenak, baldin eta kontrol-talde erregistratu batean sartuta ez badaude eta ez badira inoiz lehiatu kategoria irekiko edo absolutuko nazioarteko ekitaldi batean.

(III) Adina ez den beste arrazoi bat dela-eta indarrean dagoen legeriaren arabera gaitasun juridikorik ez dutenak.

8.– Lege honetako arauak eta definizioak interpretatzeko orduan, kontuan hartuko dira, bate-tik, Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotako arauak eta irizpideak; bestetik, nazioarteko estandarretakoak; eta, azkenik, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako Dopinaren aurkako Munduko Programa osatzen duten arau edo dokumentu teknikoetan bildutakoak. Dokumentu horiek publiko egin direla joko da Dopinaren aurkako Euskal Agentziaren egoi-tza elektronikoan argitaratze hutsarekin».

Bi.– i), j), k), l) eta m) letrak eransten zaizkio 3. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«i) Lehiaketara itzultzea Dopinaren aurkako Mundu Kodean espresuki aurreikusitako iriz-pideen arabera kirol-jarduna utzi ondoren, aintzat hartu gabe dopinaren alorreko arauak hausteagatik ezarritako etete- edo desgai-kuntza-zehapen bat bete bitartean utzi zen ala ez.

j) Pertsona bati dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zigor-, diziplina- edo adminis-trazio-zehapen bat ezarri zaionean, ez jasotzea hark emandako kirol-zerbitzurik, araudiaren arabera hala egitea debekatuta dagoen aldietan; kirolari-ek erantzukizun hori izango dute, halaber, kirolarekin lotutako zerbitzu-prestazio edo lan-harreman orotan, ordainpekoak izan ala ez, baldin eta lotura bat ezartzeko eta aholkua, tratamendua edo laguntza jasotzeko erabil badaitezke.

k) Ez izatea kirol-erakundeetan kirol-alorreko edo bestelako ardurarik dopin-arauak hausteagatik zehapenen betetze-aldian.

l) Dopin-arauak hausteagatik zehapenen betetze-aldian, ez egitea komunikazio-lanik kirol-ekitaldietan; adibidez, esatari, aurkezle edo antzeko lanak, non eta ez den dopinaren aurka borrokatzeko agintari eskudunek ezarri dituzten prebentzio-programen barruan egin-dako lankidetzat bat.

m) Dopin-arauak hausteagatik zehapenen betetze-aldian, ez aritzea edo parte hartzea komunikabideetan komentari-ista edo kolaboratzaile gisa, edo antzeko lanetan, kirol-ekital-diak emititzen edo ematen ari diren bitartean edo edonolako zabalkundea egiten ari den bitartean, non eta ez den dopinaren aurka borrokatzeko agintari eskudunek ezarri dituzten prebentzio-programen barruan egindako lankidetzat bat».

Hiru.– j) letra eransten zaio 4. artikulua-ren 1. apartatuari, eta honela geratzen da idatzita:

«j) Pertsona bati dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zigor-, diziplina- edo adminis-trazio-zehapen bat ezarri zaionean, ez jasotzea hark emandako kirol-zerbitzurik, araudiaren arabera hala egitea debekatuta dagoen aldietan; kirolari-ek laguntzaileek eta kirol-lehiaketetan parte hartzen duten animalien laguntzaileek erantzukizun hori izango dute, halaber, kirolarekin lotutako zerbitzu-prestazio edo lan-harreman orotan, ordainpe-koak izan ala ez, baldin eta lotura bat ezartzeko eta aholkua, tratamendua edo laguntza jasotzeko erabil badaitezke».

Lau.– o) letra eransten zaio 6. artikulua 1. apartatuari, eta honela geratzen da idatzita:

«o) Pertsona bati dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zigor-, diziiplina- edo administrazio-zehapen bat ezarri zaionean, ez jasotzea hark emandako kirol-zerbitzurik, araudiaren arabera hala egitea debekatuta dagoen aldietan; kirol-erakundeek erantzukizun hori izango dute, halaber, kirolarekin lotutako zerbitzu-prestazio edo lan-harreman orotan, ordainpekoak izan ala ez, baldin eta lotura bat ezartzeko eta aholkua, tratamendua edo laguntza jasotzeko erabil badaitezke».

Bost.– ñ) letra eransten zaio 7. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«ñ) Pertsona bati dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zigor-, diziiplina- edo administrazio-zehapen bat ezarri zaionean, ez jasotzea hark emandako kirol-zerbitzurik, araudiaren arabera hala egitea debekatuta dagoen aldietan; kirol-ekitaldiak antolatzen dituzten pertsona eta erakundeek erantzukizun hori izango dute, halaber, kirolarekin lotutako zerbitzu-prestazio edo lan-harreman orotan, ordainpekoak izan ala ez, baldin eta lotura bat ezartzeko eta aholkua, tratamendua edo laguntza jasotzeko erabil badaitezke».

Sei.– Aldatu egiten da 13. artikulua 6. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Kirolariei dopin-kontrolari dagokionez zer eskubide eta betebeharrak dituzten esango zaie, kontrola egingo zaiela jakinarazten zaionean, eta, hala badagokio, baita lagina hartu aurretik ere; eta, halaber, prozeduraren funtsezko izapideen eta horien ondorio nagusien berri ere emango zaie, bai eta lege honek datuen tratamenduari eta datuak lagatzeari buruz zer xedatzen duen ere. Horrez gain, jakinaraziko zaie aukera dutela datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko, bai eta beren datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere. Eskubide horiek datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legerian ezarrita daude».

Zazpi.– 14. apartatua eransten zaio 13. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«Dopinaren aurkako organoak A edo B lagina bitan banatu ahal izango du, eta lehen flaskoa A laginaren lehen analisia egiteko erabili, eta bigarren flaskoa, berriz, emaitza berresteko analisia egiteko. Kasu horretan, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako nazioarteko estandarrak bete beharko dira.

Horrelakoetan, kirolariari horren berri emango zaio alde aurretik, lagina irekitzen denean presente egoteko eskubidea egikartzeko aukera izan dezan».

Zortzi.– Aldatu egiten da 13. artikulua 12. apartatuko c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Kirolariaren B lagina bi flaskotan banatzen bada eta bigarren flaskoaren analisiak berresten badu lehenengo flaskoan agertu diren substantzia debekatua edo haren metabolitoak edo markatzaileak agertzen direla, edo, bestela, kirolariak uko egiten badio banatutako lagina berresteko flaskoa analizatzeari».

Bederatzi.– Aldatu egiten da 13. artikulua 13. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Dopinaren aurkako organoaren betebeharra izango da dopinaren aurkako araudia urratu dela frogatzea. Eginkizun horretan, balio zientifikoa aitortuko zaie Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako metodo analitikoak edo erabakitzeko mugei, baldin eta kanpo-berrikusketa batek aztertzen baditu eta komunitate zientifikoaren irizpean jartzen badira.

Pasaporte biologikoan emaitza txarra lortzea aditu-frogatzat joko da, eta balio zientifikoa aitortuko zaio, lege honen 23.1.b) artikuluan aurreikusitako arau-haustea egin dela jotzeko.

Horrelakoetan, hau da, pasaporte biologikoaren ondorioz dopinari buruzko arauak hausten direnean, emaitzak kudeatzeari buruzko, kontrolei eta ikerketei buruzko eta Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren laborategiei buruzko nazioarteko arauak kontuan hartuko eta errespetatuko dira».

Hamar.– 15. eta 16. apartatuak eransten zaizkio 13. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«15.– Nazioarteko estandarrak edo araudian jasotako beste alderdi batzuk urratzearen ondorioz ez dira baliogabetuko analisisen emaitzak edo dopinaren aurkako arau bat urratu izanaren frogak. Horrelakoetan, eraginpeko pertsonak egiaztatzen baldin badu nazioarteko estandarretan edo araudian adierazitako xedapenen bat ez betetzeak analisiaren emaitza txarra izatea edo lokalizazioak huts egitea ekar dezakeela era arrazoitu batean, dopinaren aurkako erakundeak frogatu beharko du ez-betetze horrek ez duela eragin analisiaren emaitza txarra izatea edo lokalizazioak huts egitea. Horrelakoetan, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 3.2.3 artikuluan espresuki aurreikusitakoa bete beharko du dopinaren aurkako erakundeak.

16.– Dopina kontrolatzeko eta emaitzak kudeatzeko prozedurak lege honetan aurreikusitakoaren arabera burutuko dira, eta Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako nazioarteko estandarrak eta dokumentu teknikoak aplikatuko dira. Dokumentu horiek publiko egin direla joko da Dopinaren aurkako Euskal Agentziaren egoitza elektronikoa argitaratze hutsarekin».

Hamaika.– Aldatu egiten da 14. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak osatu edo ordeztu egin ahal izango du erregistro-liburu hori datu-baseen prozedura zentralizatuen bidez, informazioaren teknologia berriak eta identifikazio elektronikoa erabiliz; esate baterako, sinadura elektronikoa eta historia elektronikoa bakar eta zentralizatuko sistemen bidez. Halakoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo da sistema erabilgarri».

Hamabi.– Aldatu egiten dira 14. artikulua 8. eta 9. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«8.– Beste autonomia-erkidego bateko, Estatuko edo nazioarteko entitate edo organismo batek emandako erabilera terapeutikoko baimenen baliozkotasunari, indarraldiari eta eraginkortasunari dagokienez, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 4.4 artikuluan eta nazioarteko estandarretan aurreikusitakoa aplikatuko da. Nazioarte-mailako kirolari federatuen kasuan, erabilera terapeutikoko baimenak nazioarteko federazioak emango ditu, bere arauen arabera. Lege honen aplikazio-eremuaren barruan dopin-kontrol bat egiten zaion edozein pertsona indarrean dituen erabilera terapeutikoko baimenen berri eman beharko du, nahitaez, dopin-kontrola egitean.

9.– Euskadiko dopinaren aurkako organoek eta diziplina- edo zehapen-organoez ezingo dituzte aurreko apartatuan aipatutako erabilera terapeutikoko baimenak edo adierazpenak baliozkotzat hartu, horiek ez badaude behar bezala erregistratuta Erabilera Terapeutikoko Baimenen Euskal Batzordean, ez eta Dopinaren aurkako Mundu Kodean eta nazioarteko estandarretan aurreikusitakoaren arabera baliozkoak ez diren baimenak edo adierazpenak ere. Era berean, baimenak edo adierazpenak ez dira baliozkotzat hartuko erregistratuta egonda ere iruzur eginez lortu badira, edo dosien baldintzak, emateko moduak edo tratamendu-epea ez badira betetzen. Erabilera Terapeutikoko Baimenen Euskal Batzordean izapidetu diren erabilera terapeutikoko baimenak eskatzeko, ebaluatzeko, ebazteko eta berrikusteko prozeduretan, lege honetan aurreikusitakoaren arabera, Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Konbentzioaren II. eranskina eta Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako nazioarteko estandarrak aplikatuko dira».

Hamahiru.– 8. apartatua eransten zaio 16. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«8.– Laborategi batek jakinarazten badu dopin-kontrol baten emaitza negatiboa dela edo emaitzak ez duela ekarri dopin-arauak urratzeaz akusatzea, lagina gorde eta berriz ere analizatu ahalko da, edo analisi gehigarriak egin ahalko dira, edozein unetan, baldin eta dopinaren aurkako kontrola daraman erakundeak edo Dopinaren aurkako Mundu Agentziak hala egiteko eskatzen badute. Horretarako, zehazten da laginak gehienez ere hamar urtez gordeko direla, jasotzen diren egunetik aurrera, horixe baita balizko arau-hausteen preskripzio-epea. Horrelakoetan, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako nazioarteko estandarretan aurreikusitakoaren arabera jokatu beharko da».

Hamalau.– Aldatu egiten da 18. artikularen 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Kirolariei lege honen aplikazio-eremuan egindako dopin-kontrolan, laginen analisiak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko akreditazioa duten laborategietan egin beharko dira, hau da, Estatuak edo Euskal Autonomia Erkidegoak homologatutakoetan, edo agentzia horrek berak onartutakoetan, indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera.

Dopinaren aurkako agintaritzek akreditatu edo homologatutakoez bestelako laborategiek egindako auzitegi-kontrol fidagarrien bidez egiaztatu ahalko dira dopinaren alorreko arau-hausteekin lotutako egitateak. Era berean, dopinaren alorreko arau-hausteekin lotutako egitateak auzitegi-azterketen bidez egiaztatu ahalko dira, edo, bestela, kirolariaren gernuan, odolean edo bestelako matrizeetan –Dopinaren aurkako Mundu Agentziak baimendu eta onartutakoetan– agertzen diren parametro esanguratsuen bidez».

Hamabost.– 7. apartatua eransten zaio 18. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«7.– Kirolariak hamar urtez lagako dizkio dopin-kontrolan eskuratutako laginak haiek hartzen dituen dopinaren aurkako agintaritzari. Lagin horiek behar bezala kontserbatu beharko dira, eta jaso eta berehala aztertu ahalko dira, edo, bestela, jaso ondorengo edozein unetan, baldin eta hala egiteko eskatzen badu edo laginak hartu zituen dopin-agintaritzak, edo Dopinaren aurkako Mundu Agentziak, edo dopinaren aurkako beste agintaritza batek – bidezko arrazoiren bat dagoela egiaztatuz gero–, dela substantzia eta metodo debekatuak detektatzeko, dela kirolariaren parametro biologikoen profila osatzeko».

Hamasei.– Aldatu egiten da 19. artikularen 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Nazioarteko konpromisoen eta obligazioen esparruan, Eusko Jaurlaritzan kirolaren eskumena duen saileko titularrak aginduko du kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, eta Estatuaren Administrazio Orokorra, berriz, Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko. Gainera, zerrendan aldaketak egiten diren aldiro, berriz ere argitaratuko da hura. Dopinaren alorreko arauak haustea ekar dezaketen substantziak eta metodoak jasoko dira, hain zuzen ere, kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrendan».

Hamazazpi.– 3. eta 4. apartatuak eransten zaizkio 19. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«3.– Unean-unean indarrean dagoen zerrendan sartuta dauden substantzia eta metodo debekatuak espezifikoak edo ez-espezifikoak izan daitezke. Substantzia eta metodo espezifikotzat hartuko dira unean-unean argitaratutako zerrendan halakotzat hartu eta kirol-errendimendua hobetzearekin zerikusi zuzenik ez duten helburuetarako erabil daitezkeenak.

4.– Abusuzko substantziatzat hartuko dira unean-unean indarrean dagoen substantzia debekatuen zerrendan berriaz halakotzat jotzen direnak. Substantzia bat, dopinaren aurkako araudiaren ondorioetarako, abusuzko substantziatzat hartzeko, kontuan hartuko da gizartean gehiegi erabiltzen ote den, maiz, kirolaz bestelako testuinguruetan».

Hemezortzi.– 6. apartatua eransten zaio 22 bis artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«6.– Behin-behineko edozein etete onartu ahalko da, borondatez eta norberaren ekimenez, epe hauetako azkena amaitu aurretik:

a) Hamar egun, B laginaren analisiaren emaitzak jakinarazten direnetik edo kontraanalisia egiteari uko egiten zaionetik aurrera, edo, bestela, hamar egun, dopinaren aurkako beste edozein arau hautsi dela jakinarazten denetik.

b) Jakinarazpena egin ondoren, kirolaria lehiatzen den lehenengo eguna.

Kirolariak ez diren beste pertsona batzuek ere, borondatez eta norberaren ekimenez, behin-behineko etetea onar dezakete, hamar eguneko epean, ustez dopinaren aurkako araua urratu izana jakinarazten zaienetik.

Borondatez onartutako behin-behineko etetearen ondorioak eta tratamendua bat etorriko dira dopinaren aurkako erakundeak hala erabakitako kasuetan lege honetan aurreikusita-koaren arabera ezartzen diren eteteen ondorioekin eta tratamenduarekin. Borondatezko onarpenaren ondorengo edozein unetan ukitutako pertsonak onarpenari uko egiten badio edo bertan behera uzten badu, ezingo zaizkio aplikatu lege honetan behin-behineko eteteetarako aurreikusitako ondorioak».

Hemeretzi.– Aldatu egiten da 23. artikulua 1. apartatuko m) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«m) Pertsona bati dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zigor-, diziplina- edo administrazio-zehapen bat ezarri zaionean, hark emandako kirol-zerbitzuak jasotzea, harekiko lan-harremana hasterik edo harreman horri eustea, araudiaren arabera hala egitea debekatuta dagoen aldietan; oso arau-hauste larritzat joko da, halaber, kirolarekin lotutako zerbitzu-prestazio edo lan-harreman oro, ordainpekoa izan ala ez, baldin eta lotura bat ezartzeko eta aholkua, tratamendua edo laguntza jasotzeko erabil badaiteke. Arau-hauste honetan sartzen da, halaber, norbaitek emandako kirol-zerbitzuak jasotzerik, harekin lan-harremana hasterik edo harreman horri eusterik ez dagoen kasuetan pertsona horren estaltzaile izatea edo haren bitartekari diren pertsonekin lotura izatea».

Hogei.– n) letra eransten zaio 23. artikulua 1. apartatuari, eta honela geratzen da idatzita:

«n) Edozein motatako mehatxu edo larderia-egintza bideratzea, dopinaren aurkako arauekin, Dopinaren aurkako Mundu Kodean aurreikusitakoarekin edo lege honekin lotutako ustezko arau-hauste edo ez-betetze bati buruzko informazioa jakinarazteko asmoa kentzeko, baita dopinaren aurkako erakunde edo alor horretako agintaritzaren eskudun bati fedeez informazioa eman dionaren aurkako errepresaliak hartzea ere. Era berean, edozein motatako mehatxu edo larderia-egintza bideratzea, dopinaren aurkako erakunde bateko kide gisa dopinaren alorreko arau-haustea ikertzen ari den edozein pertsonaren aurka».

Hogeita bat.– 4. apartatua eransten zaio 23. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«4.– Arau-haustetzat hartzen dira artikulua honen 1. apartatuko b), f), h), i) eta k) letretan adierazitako jokabideak, saialdi sinpleko graduan egin direnean, are gauzatu ez badira ere».

Hogeita bi.– Aldatu egiten da 24. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«23.1 artikulua c) eta f) letretan jasotzen diren arau-hausteetan, etenaldia lau urte izango da, salbu eta laginik hartzen ez bada eta kirolariak frogatzen badu dopinaren aurkako arauak intentziorik gabe urratu zituela, orduan etenaldia bi urte izango baita.

Manu horietan aurreikusita dauden gainerako kasuetan, zehapena bi eta lau urte bitartekoa izango da, kirolariak egiaztatutako salbuespenezko inguruabarrak zein diren aintzat hartuta, batik bat arau-hauslearen erruduntasun- edo zabarkeria-mailari erreparatuta.

Apartatu honetan aurreikusitako arau-haustea kirolari amateur batek egiten baditu, gehienez ere bi urteko zehapen-aldia ezarriko zaio.

Kirolari amateurren kasuan, arau-hauslearen erruduntasun- edo zabarkeria-maila kontuan hartuta zehaztuko da zehapenaren iraupena.

Dopinaren aurkako arau-haustea ez bada izan abusuzko substantzia bat erabiltzea edo kontsumitzea eta kirolari amateur batek egin badu eta hark egiazta badezake erruduntasun- edo zabarkeria-maila ez dela larria izan, zehapena, gutxienez, etenaldirik gabeko kargu-hartzea izango da, eta, gehienez, bi urteko etetea.

Lege honetan kirolari amateurrentzat aurreikusten den zehapen-araubidea kirolari babes-tuei ere aplikatuko zaie».

Hogeita hiru.– 8. eta 9. apartatuak eransten zaizkio 24. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«8.– Abusuzko substantzien erabileraren edo kontsumoaren ondorioz urratu badira dopinaren aurkako arauak, eta arau-hausleak frogatu badezake substantzia horiek lehiaketatik kanpo hartu zituela eta ez dutela zerikusirik kirol-errendimenduarekin, etenaldia edo desgaikuntza-aldia hiru hilabete izango da. Zehapen-aldia hilabetera murriztu ahalko da, frogatzen baldin bada ukitutako pertsonak dopinaren aurkako agintaritzek ezarritako substantzien erabilera desegokiaren aurkako programa batean parte hartu duela. Kirolariak abusuzko substantziak lehiaketan hartu, erabili edo eduki bazituen ere, frogatzen baldin badu horiek hartu, erabili edo eduki zituen testuinguruak ez zuela zerikusirik izan kirol-errendimenduarekin, intentziorik gabeko egintzat edo jokabidetzat hartuko da zehapena ezartzeari begira.

9.– Lege honen 23.1.n) artikuluan aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, federazio-lizentzia etetea, kentzea edo ezin eskuratzea izango da zehapena, eta gutxienez bi urte eta gehienez biziartean iraungo du, arau-haustearen astuntasuna eta inguruabarrak zein diren».

Hogeita lau.– Aldatu egiten da 24 bis artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Dopinaren aurkako arauak bigarren aldiz urratuz gero, honako hauetatik luzeena den etenaldia ezarriko da:

a) Sei hilabeteko etenaldia edo desgaikuntza-aldia.

b) Edo, bestela, honako iraupen hau duen etenaldia edo desgaikuntza-aldia:

(I) Hauen batura: dopinaren alorreko lehen arau-hausteagatik ezarritako etenaldia edo desgaikuntza-aldia gehi bigarren arau-haustea lehen arau-haustetzat hartuz gero aplikatu beharko litzatekeen aldia.

(II) Bigarren arau-hausteari, lehenengo arau-haustea izango balitz, aplikatu beharko litzaiokeen etenaldia edo desgaiakuntza-aldia halako bi; zehapen-aldi horren iraupena zehazteko, inguruabar guztiak eta arau-hausleak bigarren arau-haustearikiko duen erruduntasun-maila hartuko dira kontuan».

Hogeita bost.– 8. eta 9. apartatuak eransten zaizkio 24 bis artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«8.– Lege honen 35. artikuluan aurreikusitako kasuan, zehapena ezarri ondoren murriztu ahalko da artikulua honen lehenengo bi apartatuetan aurreikusitakoaren arabera ezarritako etenaldia edo desgaiakuntza-aldia.

9.– Dopinaren alorreko arau-hauste bat baino gehiago egiten bada, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.9.3 artikuluan aurreikusitako irizpideak aplikatuko dira».

Hogeita sei.– 6. apartatua eransten zaio 26. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«6.– Lege honen 23.1.n) artikuluan aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, federazio-lizentzia etetea, kentzea edo ezin eskuratzea izango da zehapena, eta gutxienez bi urte eta gehienez biziartean iraungo du, arau-haustearen astuntasuna eta inguruabarrak zein diren».

Hogeita zazpi.– 7. apartatua eransten zaio 27. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«7.– Lege honen 23.1.n) artikuluan aurreikusitako arau-haustea egiteagatik, federazio-lizentzia etetea, kentzea edo ezin eskuratzea izango da zehapena, eta gutxienez bi urte eta gehienez biziartean iraungo du, arau-haustearen astuntasuna eta inguruabarrak zein diren».

Hogeita zortzi.– 12, 13 eta 14. apartatuak eransten zaizkio 28. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«12.– Hala egitea justifikatzen duten inguruabar astungarriak daudenean, etetearen edo desgaiakuntzaren iraupena beste bi urtez luzatu ahalko da, salbu eta eraginpeko pertsonak egiaztatzen badu ez zuela izan arau-haustea egiteko asmorik. Apartatu honetan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko lege honen 21. artikuluko h), i), k) eta n) letretan aurreikusitako arau-hausteei.

13.– Legean aurreikusitakoaren arabera etete- edo desgaiakuntza-zehapenak ezarri behar badira, eta zehapen horien iraupena lau urte edo gehiago bada, aldi hori urtebetez murriztu ahalko da, baldin eta tartean den pertsonak arau-haustea egin duela aitortzen badu eta proposatutako zehapen-aldia onartzen badu; hori espresuki adierazi behar du, gehienez ere hogeit eguneko epean, arau-haustea egin duela jakinarazten zaionetik aurrera. Horrelakoetan, ezingo zaio beste murrizketarik ezarri zehapen-aldiari, legean aurreikusitako inguruabarrekin bat.

14.– Pertsona batek arau-haustea egin duela aitortu eta dopinaren aurkako erakundeak proposatutako zehapena onartzen badu, murriztu ahalko da etenaldia edo desgaiakuntza-aldia, legean aurreikusitako irizpideen arabera. Horrelakoetan, alderdi hauek hartuko dira kontuan: arau-haustearen astuntasuna, arau-hauslearen erruduntasun-maila eta pertsona horrek arau-haustea egin duela laster aitortu duen ala ez. Horrez gain, halakoetan, batzuetan, arau-haustea egin dela jotzea eragin duen dopin-kontrolaren egunetik aurrera zenbatuko da zehapena-aldia, eta, beste batzuetan, berriz, arau-haustea egin den egunetik aurrera. Nolanahi ere, artikulua honen apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, zehatutako pertsonak ezarri zaion zehapen-aldiaren erdia bete beharko du gutxienez, zehapen bat ezartzea onartu duen egunetik aurrera edo

behin-behineko eteteari men egin dion egunetik aurrera –bietako zein gertatu zen lehenengo, hari erreparatuko zaio–. Apartatu honetan aurreikusitakoarekin bat zehapen-aldia murrizten den kasuetan, zehatutako pertsonak ezingo du errekurtsorik aurkeztu».

Hogeita bederatzia.– 6. apartatua eransten zaio 30. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«6.– Dopinaren aurkako erakunde batek dopinaren aurkako arauak hautsiz lortu den sari ekonomiko bat berreskuratzen badu, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu sari hori banatzeko lehiaketan emaitzak aldatu izan ez balira horretarako eskubidea izango zuketean pertsonen edo entitateen artean. Arau-hausleen emaitzak baliogabetu ondoren aplikatuko da adierazitakoa».

Hogeita hamar.– 5. eta 6. apartatuak eransten zaizkio 31 bis artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«5.– Zehatutako pertsona kirolari bat bada, zehapena betetzen ari den bitartean, lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak egin ahalko zaizkio, eta kontrol horiek egitera bideratutako zenbait betebeharrak betetzeko eskatu ahalko zaio; esate baterako, zenbait datu eskatu ahalko zaizkio non dagoen jakiteko.

6.– Zehatutako pertsonak ez badu betetzen ezarri dioten etenaldian edo desgaiakuntza-aldian lehiaketa edo jarduera debekatuetan ez parte hartzeko eginbeharrak, lortu dituen emaitzak baliogabetu egingo dira. Horrelakoetan, jatorrizko zehapen-aldiaren amaieran beste etenaldi edo desgaiakuntza-aldi bat gehituko da, jatorrizko aldiaren edo hasieran ezarritako aldiaren iraupen berekoa».

Hogeita hamaika.– Aldatu egiten da 38. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Behin lege honetan aurreikusitako preskripzio-epea betetzen denean, edo kasuan kasuko zehapen-prozeduran, diziplina-prozeduran edo auzi kriminalean ebazpen irmoa ematen denean, dopina kontrolatzeko laborategiek ezingo dute gorde pertsona identifikagarri bati lotutako laginik. Laginak suntsitu egin beharko dira, salbu eta ikerketarako erabili behar badira, orduan disoziatuta gordeko baitira, baina betiere kirolariak bere oniritzia eman badu espresuki.

Dopin-kontrolen bidez eskuratutako laginak kontserbatzeari eta erabiltzeari dagokionez, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako nazioarteko estandarretan espresuki aurreikusitakoa aplikatuko da».

Hogeita hamabi.– Aldatu egiten da 38 bis artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«Artikulu honetan aurreikusitako zabalkundea ez da egingo baldin eta zehapena jaso duen pertsona kirolari amateurra edo babestua bada, salbu eta, kasuan kasuko inguruabarrei erreparatuta, zehapenak argitaratzea komeni dela jotzen bada».

Hogeita hamahiru.– 10. apartatua eransten zaio 42. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«10.– Laga ahalko zaizkie kiroleko dopinaren aurkako borrokan parte hartzen duten nazioarteko organismo publiko eta pribatuei, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen legeriarekin bat».

Hogeita hamalau.– Definizioen eranskin bat gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«ERANSKINA
DEFINIZIOAK

Erakundeak

Mundua

- 1.– Dopinaren aurkako erakundea: Dopinaren aurkako Mundu Agentzia, edo, bestela, dopinaren aurkako kontrol-prozesuaren edozer zati hasteko, gauzatzeko edo bete dadin eskatzeko arauak hartzeaz arduratzen den sinatzaile bat. Horren barruan, esaterako, hauek sartzen dira: Nazioarteko Olinpiar Batzordea; Nazioarteko Paralinpiar Batzordea; kirol-ekitaldi handiez arduratzen diren eta beren ardurapekoak diren ekitaldietan kontrolak egiten dituzten beste erakunde batzuk; Dopinaren aurkako Mundu Agentzia; nazioarteko federazioak, eta dopinaren aurkako erakunde nazionalak.
- 2.– Dopinaren aurkako Mundu Agentzia: Suitzako zuzenbideak sortutako eta araututako fundazioa, kiroleko dopinaren aurka borrokatzeko.
- 3.– Ekitaldi handiez arduratzen diren erakundeak: batzorde olinpiar nazionalak eta nazioarteko kirol anitzeko bestelako erakundeak biltzen dituzten elkarte kontinentalak, ekitaldi kontinentalen eta eskualdeko edo nazioarteko kirol-ekitaldien zuzendaritzan aritzen direnak.
- 4.– Kiroleko Arbitraje Auzitegia: kiroleko gatazkak arbitrajearen edo bitartekaritzaren bidez konpontzen dituen erakunde independentea. Kirolaren beharrian espezifikoetara moldatutako prozedura-arauak aplikatzen ditu.
- 5.– Sinatzaileak: Dopinaren aurkako Mundu Kodea sinatu duten entitateak, hura betetzea onartu dutenak, kodearen 23. artikuluan ezartzen denaren arabera.

Estatua

- 6.– tzorde Olinpiar Nazionala: Nazioarteko Olinpiar Batzordeak onartutako erakundea.
- 7.– Dopinaren aurkako erakunde nazionala: herrialde bakoitzak dopinaren aurkako arauak hartzeko eta bete-arazteko, laginak biltzeko, emaitzak kudeatzeko eta zehapen-prozedura izapidetzeko agintaritzaren arduradun nagusi izendatutako entitatea edo entitateak; Espainian, Kiroleko Dopinaren aurkako Espainiako Batzordea estatu-agentzia.
- 8.– Dopinaren aurkako Zehapen Batzordea: dopinaren aurkako arauak haustearen ondoriozko zehapen-espedienteak –lege honetan aurreikusitakoak– ebazteko eskumena duen organoa.
- 9.– Kiroleko Dopinaren aurkako Espainiako Batzordea estatu-agentzia: dopinaren aurkako Espainiako erakundea. Organismo publiko honen bidez, dopinaren aurka borrokatzeko Estatuko politikak egiten dira.

Autonomia

- 10.– Dopinaren aurkako erakunde autonomikoa: autonomia-erkidego bakoitzak dopinaren aurkako arauak hartzeko eta bete-arazteko, laginak biltzeko, emaitzak kudeatzeko eta zehapen-prozedura izapidetzeko agintaritzaren arduradun nagusi izendatutako entitatea edo entitateak; Euskal Autonomia Erkidegoan, Dopinaren aurkako Euskal Agentzia.

Euskadi

- 11.– Dopinaren aurkako Euskal Agentzia: dopinaren aurkako Euskadiko erakundea. Organismo publiko honen bidez, dopinaren aurka borrokatzeko Euskadiko politika autonomikoak egiten dira.
- 12.– Kirolaren Euskal Auzitegi Administratiboa (Kirol Justiziako Euskal Batzordea): EAEko organo bat da, organikoki Eusko Jaurlaritzari atxikia baina harekiko independentea dena, euskal kirol-legerian xedatutakoaren arabera sortua.

Arauk

- 13.– Dopinaren aurkako arauak haustearen ondorioak (“ondorioak”): Kirolari batek edo beste pertsona batek dopinaren aurkako arau bat hausteak honako ondorio hauek ekar ditzake (bat edo batzuk):
- Baliogabetzea, hau da, kirolariak dena delako lehiaketan edo ekitaldian lortutako emaitzak baliorik gabe uztea, eta, ondorioz, domina, puntu eta sari guztiak galtzea.
 - Etetea, hau da, kirolariari edo beste pertsona bati debekatzea aldi jakin batez edo behin betiko parte hartzea, modu guztietan, lehiaketa eta ekitaldi guztietan, bai eta finantzaketa lortzea ere.
 - Behin-behineko etetea, hau da, kirolariari edo beste pertsona bati debekatzea lehiaketa eta jarduera guztietan aldi batez parte hartzea, harik eta zehapen-prozeduran behin betiko ebazpena eman arte.
 - Ondorio ekonomikoak, hau da, zehapen ekonomikoa, dopinaren aurkako arauak hausteagatik ezarria edo arau-hausteak eragiten dituen kostuak ordaintzeko ezarria.
 - Zabalkundea edo informazio publikoa, hau da, herritar guztien artean informazioa zabaltzea, edo taldeko kirolean aurretiazko jakinarazpenak jasotzeko baimenduta ez dauden pertsoneri ematea informazioa. Taldeko kiroletan, taldeek ere jasan ditzakete lege honetan ezartzen diren ondorioak.
- 14.– Kodea: Dopinaren aurkako Mundu Kodea, eta, halaber, haren eranskinean kodea interpretatzeko jasota dauden definizioak.
- 15.– Nazioarteko araua: Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako araua, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen lagungarri. Nazioarteko araua errespetatzea, ez ordea gainerako arauak, jardunbideak eta prozedurak, aski izango da erabakitzeko nazioarteko arauan ezartzen diren prozedurak behar bezala bete direla. Nazioarteko arauen barruan sartuko dira nazioarteko arauarekin bat etorritik argitaratzen diren dokumentu tekniko guztiak.
- 16.– Unescoren konbentzioa: Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Konbentzioa, Unescoren 2005eko urriaren 19ko Biltzar Nagusiaren 33. bilkuran onartua; konbentzioa sinatu duten estatuak eta Kiroleko Dopinaren Aurkako Nazioarteko Konbentzioa sinatu duten Alderdien Konferentziak bere egindako zuzenketa guztiak hartzen ditu barnean.

Agenteak

- 17.– Adingabea: hemezortzi urte beteta ez dituen pertsona fisikoa.
- 18.– Behatzaile independenteen programa: Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren gainbegiradapeko behatzaile- eta/edo auditore-taldea, dopinaren aurkako kontrol-prozesua behatzen duena eta hari buruzko orientabidea ematen duena ekitaldi jakin batzuetan edo haien aurretik, eta behatutakoaren berri ematen duena, dopinaren aurkako arauak betetzen direla gainbegiratzeko Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren programaren barruan.
- 19.– Hirugarren ordezkaria: dopinaren aurkako erakunde batek dopin-kontrolaren edo dopinaren aurkako hezkuntza-programen alderdiren bat eskuordetzen dion pertsona oro, barnean direla, besteak beste, dopinaren aurkako erakundearentzat laginak biltzen dituzten edo dopinaren aurkako bestelako kontrol-zerbitzuak edo hezkuntza-programak eramaten dituzten hirugarrenak edo dopinaren aurkako beste erakunde batzuk, edo kontratista independente diharduten eta dopinaren aurkako erakundearentzat dopinaren aurkako kontrol-zerbitzuak egiten dituzten pertsonak; adibidez, enplegatuek ez diren dopina kontrolatzeko agenteak edo laguntzaileak. Definizio horretan ez da sartzen Kirol Justiziako Euskal Batzordea.
- 20.– Kirolari amateurra: estatu-mailakoa edo nazioarte-mailakoa ez den kirolaria. Dopinaren aurkako Euskal Agentziak kirolari amateur bati dopinaren aurkako arauak aplikatzeko ahalmena du. Mota horretako kirolariak dagokienez, dopinaren aurkako erakundeak aukera hauek izango ditu: kontrol mugatuak egitea edo inolako kontrolik ez egitea; laginak aztertzean substantzia debekatuen zerrenda osoa ez erabiltzea; kokapenari buruzko informaziorik ez eskatzea edo informazio mugatua eskatzea; edo alde aurretik baimen terapeutikorik ez eskatzea. Aitzitik, dopinaren aurkako erakunde baten kontrol-eskumenaren mendean dagoen eta estatu-maila edo nazioarte-maila baino beheragoko maila batean lehiatzen den kirolari batek dopinaren aurkako arauak –araudian jasoak– hausten baditu, lege honetan aurreikusitako zehapenak aplikatuko zaizkio.

- 21.– Kirolaria: kirol-lizentzia bat eskuratu duen, lortzeko bidean dagoen edo eskatzeko moduan dagoen edozein pertsona.
- 22.– Kirolariari laguntzeko langileak: entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, kiroletako zuzendariak, agenteak, zuzendaritzako kideak, kirol-klubetako edo -taldeetako langileak, osasun-langileak edo paramedikuak eta senideak, baita kirol-lehiaketetan parte hartzen duten edo haietarako prestatzen diren kirolariek lan egiten duen edo haiek artatzen dituen edo haiei laguntzen dien beste edozer pertsona ere.
- 23.– Kontrol-talde erregistratua: nazioartean kasuan kasuko nazioarteko federazioak, Estatuan Kiroleko Dopinaren aurka borrokatzeko Espainiako Batzordea estatu-agentziak eta erkidegoan Dopinaren aurkako Euskal Agentziak, zeinek bere aldetik, zehazten dituzten lehentasun goreneko kirolarien taldea. Kirolari horiei kontrol espezifikoak egiten zaizkie lehiaketan eta lehiaketaz kanpo nazioarteko federazioaren, batzordearen eta agentziaren kontrol-banaketaren plangintzaren barruan, eta haien lokalizazioari buruzko informazioa eman behar dute, lege honek arautzen duenarekin bat.
- 24.– Parte-hartzailea: kirolaria bera edo kirolari bati laguntzen dion langilea.
- 25.– Pertsona: pertsona fisiko bat, erakunde bat edo bestelako entitate bat.
- 26.– Pertsona babestua: egoera hauetako batean dagoen kirolaria edo pertsona fisikoa: (I) dopinaren aurkako araudia hausteko unean hamasei urte beteta ez izatea; (II) dopinaren aurkako araudia hausteko unean hemezortzi urte beteta ez izatea, baldin eta ez badago kontrol-talde erregistratu baten barruan eta ez bada inoiz lehiatu kategorian irekiko edo absolutuko nazioarteko ekitaldi batean; (III) adinagatik ez beste arrazoi batzuegatik indarreko legeria juridikoaren arabera gaitasun juridikorik ez izatea.

Substantziak eta metodoak

- 27.– Abusuzko substantzia: substantzia eta metodo debekatuen zerrendan halakotzat jotako edozer gai. Abusuzko substantzietan sartzen dira debekuen zerrendan halakotzat jotako substantzia debekatuak; gizarteak, maiz, gehiegi erabiltzen ditu substantzia horiek, kirol-ekitaldiez bestelako testuinguruetan.
- 28.– Kirolariaren pasaporte biologikoa: Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren kontrol eta ikerketetarako nazioarteko arauan eta laborategietarako nazioarteko arauan datuak biltzeko eta alderatzeko ezartzen diren programa eta metodoak.
- 29.– Lagina: dopina kontrolatzeko bildutako edozer material biologiko.
- 30.– Markatzailea: substantzia edo metodo debekatu bat erabili dela adierazten duen konposatu bat, konposatu-multzo bat edo aldagai biologiko bat edo batzuk.
- 31.– Metabolitoa: biotransformazio-prozesu baten bidez sortutako edozer substantzia.
- 32.– Metodo debekatua: substantzia eta metodo debekatuen zerrendan halakotzat jotako edozer metodo.
- 33.– Metodo espezifikoa: substantzia eta metodo debekatuen zerrendan halakotzat jotako edozer metodo. Debe-katuta dauden metodoak ez dira espezifikotzat hartuko, non eta ez den berariaz halakotzat jotzen debekuen zerrendan.
- 34.– Produktu kutsatua: produktuaren etiketan agertzen ez den eta Interneten arrazoizko bilaketa bat eginda aurkitu daitekeen informazioan azaltzen ez den substantzia debekatu bat daukan produktua.
- 35.– Substantzia debekatua: substantzia eta metodo debekatuen zerrendan halakotzat jotzen diren gaiak eta gai-multzoak. Dopinaren aurkako Mundu Agentziak debekuen zerrendan sartuko diren substantzia eta metodo debekatuak zehaztea, substantziak zerrenda horretako kategorietan sailkatzea, substantzia bat edozer momentutan edo lehiaketetan soilik debekatuta dagoen substantziazat sailkatzea eta substantzia edo metodo bat substantzia espezifikotzat, metodo espezifikotzat edo abusuzko substantziazat sailkatzea. Erabaki horiek guztiak behin betikoak dira, eta kirolariek edo beste pertsona batzuek ezingo dituzte aurkaratu horretarako alegatuta, besteak beste, delako substantzia edo metodoa ez dela agente estaltzaile bat, ez duela helburu kirol-errendimendua hobetzea, ez dela arriskutsua osasunerako edo ez dela kirol-espirtuaren aurkakoa.

- 36.– Substantzia espezifikoa: substantzia eta metodo debekatuen zerrendan halakotzat jotako edozer gai. Debe-kuen zerrendak kontrakoa adierazi ezean, substantzia debekatu guztiak espezifiktzat hartuko dira.
- 37.– Substantzien eta metodo debekatuen zerrenda: Zerrenda urtero onartzen du ebazpen baten bidez Kirol Kontseilu Gorenaren lehendakariak, eta, gero, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da; edo, bestela, kirol arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko titularrak onartzen du, eta Euskal Herriko Aginta-ritzaren Aldizkarian argitaratzen da, Espainiak onartutako nazioarteko konpromisoak betetzeko, batez ere Unescoren Dopinaren Aurkako Konbentzioa. Zerrendan, kirolean debekatuta dauden substantzia eta me-todo guztiak agertzen dira, hau da, kontsumituz edo erabiliz gero dopatzearen ondoriozko zehapena ekar dezaketenak.

Emaitzak

- 38.– Emaiza analitiko txarra: Dopinaren aurkako Mundu Agentziak akreditatutako edo onartutako laborategi ba-ten txostena, zeinak, laborategietarako nazioarteko arauarekin bat etorrira, lagin batean substantzia de-bekatu bat edo haren metabolitoak edo markatzaileak daudela edo metodo debekatu bat erabili izanaren ebidentziak daudela zehazten baitu.
- 39.– Emaiza anomaloa: Dopinaren aurkako Mundu Agentziak akreditatutako edo onartutako laborategi batek egindako txostena, zeinak, Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren laborategietarako nazioarteko arauaren edo hari lotutako agiri teknikoen arabera, ikerketa zehatzago baten beharra baitu, analisiaren emaitza txarra izan den ala ez erabakitzeke.
- 40.– Emaiza anomaloa pasaportearen: aplikatu behar diren Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko arauetan azaltzen denaren arabera, pasaporteko emaitza anomaloa jasotzen duen txostena.
- 41.– Emaiza txarra pasaportearen: aplikatu behar diren Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko arauetan azaltzen denaren arabera, pasaporteko emaitza txarra jasotzen duen txostena.
- 42.– Erabakitzeke muga: lagin bat analizatzean, substantzia batek, baimenduta egon dadin, izan dezakeen ge-hieneko balioa; balio horretatik gora, analisiaren emaitza txarra dela jakinaraziko da, laborategietarako na-zioarteko arauaren arabera.
- 43.– Jakinarazteko gutxieneko maila: lagin bat analizatzean, substantzia debekatu baterako edo haren metabo-lito edo markatzaile baterako edo gehiagorako aurreikusten den kontzentrazioa; baldin eta kontzentrazioa hori baino txikiagoa bada, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak akreditatutako laborategiek ez dute jakina-razi behar analisiaren emaitza txarra dela.

Erabilera

- 44.– Administrazioa: Pertsona batek substantzia edo metodo debekatu bat eskuratzea edo ematea, edo haren erabilera edo erabiltzeko saialdia gainbegiratzea edo erraztea, edo erabileran edo erabiltzeko saialdian moduren batean parte hartzea. Hala ere, definizio honen barruan ez da sartzen osasun-langileek substan-tzia edo metodo debekatua fede onez erabiltzea xede terapeutiko egiazko eta legezkoetarako, edo arrazoi onargarri batekin; halaber, lehiaketaz kanpoko kontroletan baimenduta dauden substantzia debekatuekin lotutako ekintzak ere ez dira sartzen, kasu honetan izan ezik: inguruabarrek, osotara begiratuta, frogatzen dutenean substantzia debekatuek ez dutela xede terapeutiko egiazko eta legezkorik, edo kirol-errendimen-dua hobetzeko helburua dutela.
- 45.– Edukitza: edukitza fisikoa edo izatezkoa; ezinbestekoa da pertsonak substantzia edo metodo debekatuaren kontrol eskusiboa edukitzea edo eduki nahi izatea, edo hura dagoen tokiarena. Hala ere, baldin eta ez badu substantzia edo metodo debekatuaren kontrol eskusiboa, edo hura dagoen tokiarena, izatezko edukitza berari egozteko ezinbestekoa da pertsona horrek substantzia edo metodo debekatuaren presentziaren ja-kitun izatea eta hura kontrolatu nahi izatea. Beraz, edukitza hutsa ez da dopinaren aurkako arau-hauste izango baldin eta, dopinaren aurkako araua hautsi dela jakinarazi aurretik, delako pertsonak neurri zehatzak hartzen baditu frogatzeko ez duela jada substantzia edo metodoa edukitzeko borondaterik, eta dopinaren aurkako erakunde baten aurrean berariaz adierazten badu edukitzari uko egin diola. Definizio honetan jaso-tako aurkako beste edozer adierazpeni kalte egin gabe, substantzia edo metodo debekatu bat erostea, baita bide elektronikoak edo bestelakoak erabilia ere, edukitza da erosleari dagokionez.

- 46.– Erabilera: Substantzia edo metodo debekatu bat moduren batean erabiltzea, aplikatzea, irenstea, injektatzea edo kontsumitzea.
- 47.– Erabilera terapeutikoko baimena: Baimen hau Erabilera Terapeutikoko Baimenen Batzordeak ematen die tratamendu medikoa jasotzen ari diren kirolariei, substantzia eta metodo debekatuen zerrendako substantzia edo metodo bat erabili ahal izateko. Berariazko prozedura bat dago ezarrita baimenok emateko.
- 48.– Iruzurrezko manipulazioa: Berariazko jokabide bat da, dopin-kontrolaren prozesua galarazten duena, baina, bestela balitz, metodo debekatuen definizioan sartuko ez litzatekeena. Iruzurrezko manipulazioa izango da, besteak beste, eroskerian aritzea ekintza bat egin dadin edo egin ez dadin, edo helburu berarekin eroskerian ari den beste norbaiten eskaintza onartzea; laginak hartzea eragozte; laginen analisisan eragitea edo laginen analisia eragozte; dopinaren aurkako erakunde bati, erabilera terapeutikoko baimenen batzorde bati edo adituen epaimahai bati aurkeztutako dokumentuak faltsutzea; lekukoen testigantza faltsuak lortzea; dopinaren aurkako erakundearen edo entzunaldia egiten den instantziaren aurrean iruzurrezko beste edozein egintza bideratzea, emaitzen kudeaketan edo zehapenen ezarpenean eragiteko; eta aipatutakoen antzeko beste esku-sartze edo eskua sartzeko saialdi batzuk egitea berariaz, dopin-kontrolaren edozein alderditan.
- 49.– Trafikoa: Kirolari batek, kirolariari laguntzen dioten langileek edo dopinaren aurkako erakunde baten jurisdikziopean dagoen pertsona batek substantzia edo metodo debekatu bat saltzea, ematea, garraiatzea, bidaltzea edo banatzea –fisikoki, baliabide elektronikoak edo beste mota batekoak erabiliz– hirugarren bati, edo xede horietako baterako edukitzea. Hala ere, definizio horren barruan ez da sartzen medikuek substantzia edo metodo debekatuak fede onez erabiltzea xede terapeutiko egiazko eta legezkoetarako, edo arrazoi onargarri batekin; halaber, lehiaketaz kanpo baimenduta dauden substantzia debekatuarekin lotutako ekintzak ere ez dira sartzen, kasu honetan izan ezik: inguruabarrek, osotara begiratuta, frogatzen dutenean substantzia debekatuak ez direla erabili xede terapeutiko egiazko eta legezkoetarako, edo kirol-errendimendua hobetzeko helburua dutela.

Termino juridikoak

- 50.– Atariko entzunaldia: interesdunak alegazioak egiteko entzunaldia. Idatziz edo ahoz egingo ditu alegazioak, behin-behineko etetearen jakinarazpena jaso ondoren.
- 51.– Baliogabetzea: Ikusi “Dopinaren aurkako arauak haustearen ondorioak”.
- 52.– Behin-behineko etetea: Ikusi “Dopinaren aurkako arauak haustearen ondorioak”.
- 53.– Erru edo zabarkeria larririk eza: Kirolariak edo beste pertsona batek frogatzea, inguruabar guztiei erreparatuta eta errurik edo zabarkeriarik ezaren irizpideak aintzat hartuta, dopinaren alorreko araua haustean ez zuela zabarkeriaz jokatu, edo haren errua ez zela esanguratsua izan. Kirolari babestuek eta amateurrek izan ezik, substantzia beren organismoan nola sartu zen frogatu beharko dute kirolariek, egin duten arau-haustea edozein izanik ere.
- 54.– Erruduntasuna: Betebehar bat ez betetzea edo egoera jakin bati behar bezalako arreta ez ematea. Kirolariaren edo beste pertsona baten erruduntasun-maila ebaluatzean kontuan hartu beharreko faktoreen artean, hauek aipa daitezke, besteak beste: haren esperientzia; pertsona babestua den ala ez; zenbait kontsiderazio berezi, hala nola desgaitasuna; kirolariak hauteman beharko zukeen arrisku-maila; eta, arrisku-maila horri lotuta, kirolariak eskainitako arreta- eta ikerketa-maila. Kirolariaren edo beste pertsona baten erruduntasun-maila ebaluatzean, aztertutako inguruabarrek espezifikoak izan behar dute, eta kirolaria espero izatekoa zen jokabide-eredutik desbideratu izana ulertzeko modukoak. Hartara, adibidez, zehapena ezartzearen ondorioz kirolari batek zehapen-aldian diru-kopuru handiak irabazteko aukera galtzea, kirolari izateari uzteko denbora gutxi geratzea edo kirol-egutegiaren programazioa ez dira hartuko lege honen arabera zehapen-aldia murrizteko faktoretzat.
- 55.– Errurik edo zabarkeriarik eza: Kirolari batek edo beste pertsona batek frogatzea ez zekiela, ez zuela susmatzen eta ezin izan zuela jakin edo aurreikusi, arreta handiz jokaturik ere, substantzia edo metodo debekatu bat erabili zuela edo eman ziotela, edo dopinaren aurkako arau bat urratu zuela. Kirolari babestuek eta amateurrek izan ezik, substantzia beren organismoan nola sartu zen frogatu beharko dute kirolariek, egin duten arau-haustea edozein izanik ere.

- 56.– Etetea: Ikusi “Dopinaren aurkako arauak haustearen ondorioak”.
- 57.– Independentzia instituzionala: Dopinaren aurkako Zehapen Batzordeko kideek erabateko independentzia instituzionala izango dute emaitzak kudeatzeaz arduratzen den dopinaren aurkako erakundearekiko; beraz, ez dira inola ere haren agintaritzaren mendean egongo.
- 58.– Independentzia operazionala: Horren arabera, prozeduren instrukzioa Dopinaren aurkako Zehapen Batzordeko kide ez direnek egin behar dute. Dopinaren aurkako Zehapen Batzordeko kideek burutuko dituzte ezunaldi- eta ebazpen-prozesuak, dopinaren aurkako erakundearen edo hirugarrenen esku-sartzerik gabe.
- 59.– Kirolariaren erantzukizuna: Lege honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kirolariaren ardura izango da frogatzea ez duela errurik izan edo ez duela zabarkeriaz jokatu, edo egitezko edo zuzenbidezko okerren bat egin duela substantzia edo metodo debekatua erabiltzean edo kontsumitzean. Halaber, kirolariak frogatu beharko du ez zela delitu-saialdirik izan azaldutako jokabideak egitean.
- 60.– Ondorio ekonomikoak: Ikusi “Diruzko zehapenak ezartzea”.
- 61.– Saialdia: dopinaren aurkako arau bat haustea helburu duen ekintza planifikatu baten barruan funtsezko urratsa den borondatezko jokabidea. Nolanahi ere, pertsona bat araua hausten saiatze hutsagatik ez da joko dopinaren aurkako arauak hautsi dituenik baldin eta arau-haustean inplikaturik ez dagoen hirugarren bat ohartu aurretik araua hausteaz etsi egiten badu.
- 62.– Zabalkunde edo komunikazio publikoa: Ikusi “Dopinaren aurkako arauak haustearen ondorioak”.

Ekitaldiak/Kirolak/Lehiaketa-aldia

- 63.– Banakako kirola: taldeko kirola ez den edozein kirol.
- 64.– Ekitaldiaren iraupena: ekitaldia hasten denetik amaitu arte igarotzen den denbora, organismo arduradunak ezartzen duenaren arabera.
- 65.– Ekitaldiaren jokalekua: ekitaldiaren ardura duen agintaritzak zehazten dituen jokalekuak.
- 66.– Kirol-ekitaldia: kirol-organismo bakar baten zuzendaritzapean egiten diren lehiaketetako seriea edo atala. Lehiaketan parte hartzeko eta hura antolatzeko arauak organismo horrek ezartzen ditu. Lurralde-eremuaren arabera, honela sailkatzen dira:
- Nazioarteko ekitaldia: Nazioarteko Olinpiar Batzordearen, Nazioarteko Paralimpiar Batzordearen, nazioarteko federazio baten, ekitaldi handiak antolatzen dituen erakunde baten edo nazioarteko beste kirol-erakunde baten ardurapean egiten den ekitaldia edo lehiaketa, edo, bestela, ekitaldi edo lehiaketa bat, zeinaren ordezkari teknikoak erakunde horietako batek izendatzen baititu.
 - Estatu-mailako ekitaldia: nazioartekoa ez den ekitaldi edo lehiaketa oro, parte hartzen duten kirolariak estatu-mailakoak zein nazioartekoak izan. Estatuan indarrean dagoen kirol-legeriak zehaztuko du zer diren estatu-mailako ekitaldiak.
 - Ekitaldi autonomikoa: ez nazioartekoa eta ez estatu-mailakoa ez den ekitaldi edo lehiaketa oro, parte hartzen duten kirolariak estatu-mailakoak zein nazioartekoak izan. Estatuan indarrean dagoen kirol-legeriak zehaztuko du zer diren ekitaldi autonomikoak.
- 67.– Lehiaketa: proba bakar bat, partida bat edo kirol-lehiaketa jakin bat.
- 68.– Lehiaketa-aldia: Lehiaketa-aldia zenbatzen hasten da kirolariak parte hartu behar duen lehiaketaren aurreko eguneko 11:59an, eta lehiaketa amaitu eta harekin lotutako laginak biltzen diren arte irauten du.
- 69.– Lehiaketaz kanpo: Lehiaketakoak ez diren aldi guztiak lehiaketaz kanpokoak dira.
- 70.– Taldeko kirola: lehiaketa batean jokalariek ordeztzeko aukera ematen duen kirola.

Dopinaren inguruko jarduerak

- 71.– Dopinaren aurkako jarduerak: Dopinaren aurka borrokatzeko hezkuntza eta informazioa ematea, kontrolen banaketa planifikatzea, kontrol-talde erregistratu bat edukitzea, kirolarien pasaporte biologikoak kudeatzea, kontrolak egitea, laginen analisiak antolatzea, informazioa biltzea eta ikerketak egitea, erabilera terapeutikoko baimenen eskaerak izapidetzea, zehapenen jarraipena egitea eta zehapenak betearaztea eta Dopinaren aurkako Mundu Kodean eta/edo nazioarteko arauetan aurreikusitakoaren arabera dopinaren aurka borrokatzeko balio duen beste edozein jarduera.
- 72.– Dopinaren aurkako Mundu Agentziak ezarritako informazio-sistema: Datu-baseak kudeatzeko tresna bat da, webgune batean kokatua, informazioa sartzeko, biltzeko, partekatzeko eta txostenak egiteko, helburu izanik alderdi interesdunei eta Dopinaren aurkako Mundu Agentziari dopinaren aurkako jardueretan laguntzea, datuak babesteari buruzko legeria betez. Sistemari honela deritzo gaur egun: “Anti-Doping Administration and Management System (ADAMS)”.
- 73.– Funtsezko laguntza: Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, funtsezko laguntza ematen duen pertsona batek (1) dopinaren aurkako arau-hausteen gainean duen informazio guztia jakinarazi beharko du, adierazpen idatzi eta sinatu baten bidez. Eta (2) informazio horrekin zerikusia duen edozer kasuren gaineko ikerketan eta hartzen diren erabakietan erabateko laguntza eman beharko du; horren barruan sartzen da, adibidez, entzunaldi batean lekukotasuna ematea dopinaren aurkako erakunde batek edo adituen epaimahai batek eskatuz gero. Gainera, ematen duen informazioa sinesgarria izan behar da, eta irekitako kasuaren zati garrantzitsua; kasurik zabaldu ez bada, hura izapidetzeko adinako oinarria eman behar du informazio horrek.
- 74.– Hezkuntza: kirolaren aldeko balioak transmititzea eta kirolaren aldeko jarrera sustatzen eta babesten duten jokabideak garatzea eta berariazko zein intentziorik gabeko dopina prebenitzea helburu duen ikaskuntza-prozesua.
- 75.– Kontrola: Dopina kontrolatzeko prozesu globalaren atala da. Hauek hartzen ditu barnean: kontrolen banaketa planifikatzea eta laginak biltzea, manipulatzeko eta laborategira bidaltzea.
- 76.– Zuzendutako kontrolak: Kirolari jakin batzuk hautatzea kontrolak egiteko, Kontrol eta Ikerketetarako Nazioarteko Estandarrean ezartzen diren irizpideekin bat etorriz.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lege hau indarrean jarri aurretik dopinaren alorrean egin diren arau-haustek aurreko araudia-
ren mende egongo dira, salbu eta arau berrian aurreikusitako erregulazioa onuragarriagoa bada
espediente ireki zaienentzat.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko
12/2012 Legearen egokitzapen terminologikoa.

Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen euskarazko bertsioan, «datuak
eman» eta «datuak utzi» terminoak «datuak laga» terminoarekin ordezkatzeko dira, euskarazko hiz-
kera tekniko gaurkotu eta gaztelaniazko «cesión de datos» termino analogoarekin bateratzeko,
eta, hala, segurtasun juridikoa eta legearen hizkuntza-bertsioen arteko baliokidetzaren terminologi-
koa bermatzeko. Eragindako xedapenak honako hauek dira: 13.6, 42.9, 45.9, 46.2, 46.3 eta 47.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 16a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.